– Aldian aldiko azterketen gaineko tarifei buruzko I. Eranskinean, 550 orrialdean, euskarazko testuan, honakoa dioenean:

En el Anexo I. Tarifas por inspecciones periódicas, en el texto en euskera, página 550, donde dice:

1. KATEGORIAKO IBILGAILUAK 13,31 €
(Motozikletak eta motoredun ibilgailuak, gehienez hiru gurpilekoak)

honakoa esan behar du:

Debe decir:

1. KATEGORIAKO IBILGAILUAK 16,31 €
(Motozikletak eta motoredun ibilgailuak, gehienez hiru gurpilekoak)

## NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### Zk-429

373/2001 DEKRETUA, abenduaren 26koa, Euskal Herriko bertako abere-arrazei eta arrazok sustatzea helburu duten elkarteei buruzkoa.

Bertako abere-arrazei eustea gure arbasoen ondarea zaintzeko modua izan dute euskal abeltzainek. Horrela, mendeetan zehar etengabe eta euren burua eskainita egindako lanaz gain, lurraldearen orografia berezia ere antzinako abeltzaintza-ondare horren euskarri izan da. Alde horretatik, Euskal Herriko egungo bertako abere-arrazen osaeran, erabakigarria izan da bai baserritarraren jarduera bai ingurumenak ere hautespen naturalaren bidez eragindakoa.

Azken urteotan, erakundeetatik ere bertakoak ditugun euskal arrazak babesteko apustu garbia egin da. Horrela, arraza horietako batzuen ezaugarriak finkatu dira arrazok identifikatzeko eta beste arraza batzuetatik bereizteko, euren onera etortzeko eta zaintzeko lagungarriak izango direlakoan. Alde horretatik, gogoratu behar da Europako Batzorde Zooteknikoak —FAOk baliabide genetikoen iraunarazpen eta erabilerari buruz egindako kontsulta teknikoaren ondorioz— ezarri zuena, hau da, baliabide genetikoak iraunarazteko eta zaintzeko programetan honako hauek jaso behar zirela ezinbestean: arrazaren aitorpen ofiziala, arrazaren ezaugarri zoometrikoen definizioa eta zaintze, erabilpen eta sustapen egoeren kontrol-plana egitea eskueran dauden baliabideak oinarritzat hartuta.

Gaur egun, ildo horretatik jarraitzeko eta orain arte egindakoa finkatu nahian, beharrezkotzat jo da katalogo ofizial bat egitea, bertan gaur arte bizirik heldu diren bertako abere-arraza guztiak jasoko direla.

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

### N°-429

DECRETO 373/2001, de 26 de diciembre, sobre razas animales autóctonas vascas y entidades dedicadas a su fomento.

La conservación de las razas animales autóctonas ha sido para el ganadero vasco una forma de preservar el legado de nuestros ancestros. Así, junto a su continuada y sacrificada labor durante siglos, también la especial orografía del territorio ha contribuido a la conservación de este patrimonio cultural ganadero cuyo origen en algunos casos se remonta a la noche de los tiempos. En este sentido, en la conformación de las actuales razas animales de Euskal Herria, ha sido determinante tanto la intervención del baserritarra como la del propio medio a través de la selección natural.

En los últimos años, también desde las instituciones se ha venido realizando una apuesta inequívoca por la protección de las razas autóctonas vascas, estableciendo las características de algunas de ellas como base para identificar y distinguirlas de todas las demás razas y así facilitar su recuperación y conservación. En este sentido, hay que recordar que ya el Comité Zootécnico Europeo, como consecuencia de la consulta técnica de la F.A.O. sobre conservación y manejo de los recursos genéticos, estableció que, en los programas de conservación y mantenimiento de los recursos genéticos debían incluirse necesariamente un reconocimiento oficial de la raza, una definición de sus características zoométricas y un plan de control de los estadios de preservación, utilización y promoción a partir de los medios disponibles.

En la actualidad, para seguir avanzando en esta línea y consolidar lo ya realizado, se estima necesario el establecimiento de un catálogo oficial que contenga todas las razas animales autóctonas conservadas y la fija-

Bestetik ere, arau orokorrak ezarri behar dira bertako abereen arraza-estandarrak ezartzeko eta horiek garatzeko beharrezkoak diren gutxienezko baldintzak eta arraza-estandarron zaintza, hazkuntza eta hobekuntza helburu duten elkarteak eta erakundeak arautzeko.

Dekretu honen tramitazioan aholkua eskatu zaie foru aldundiei bai eta horrekin lotutako sektoreak ordezkatzen dituzten erakundeei ere.

Xedapen hau Euskal Autonomia Estatutuaren 10.9. artikuluan zehaztutakoarekin bat etorriz eman da.

Horren indarrez, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak proposatuta, lehendakariak onartu eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2001eko abenduaren 26ko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Gaia.

Dekretu honen helburuak honako hauek dira: Euskal Herriko bertako abere-arrazen katalogo ofiziala egitea eta arraza horiei dagozkien arraza-estandarrak onartzeko oinarrizko baldintzak ezartzea, arrazok iraunaraztea, haztea edo eta hobetzea helburu duten elkarteen aitorpen ofiziala arautzea, bai eta Euskal Herriko Bertako Abere-Arrazen Kontseilua sortzea ere.

*2. artikulua.–* Definizioak.

Dekretu honen ondorioetarako, honako definizio hauek hartuko dira kontuan:

a) Euskal Herriko bertako abere-arraza: jatorri ezagun urrunena Euskal Herrian duen abere-arraza eta dekretu honen bidez eratutako katalogoaren barruan dagoena.

b) Arrazari buruzko arau bereziak: arraza-estandarra jasotzen duen araua edo arraza berekotzat jotzeko eta liburu genealogikoa ezartzeko bide ematen duen espezie bateko abereen ezaugarri objektiboen multzoa.

c) Bertako arrazak sustatzeko elkartea: Euskal Herriko bertako abere-arraza zaintzen, hazten edo eta hobetzen duten elkarteak eta erakundeak, publikoak zein pribatuak, beti ere, nortasun juridikoa eta aitorpen ofiziala baldin badute. Aitorpena lortzeko, dekretu honen bidez sortutako erregistroan inskribatu behar da.

d) Galtzeko arriskua: arraza bakoitza zein egoeratan dagoen adierazten du FAOk zehaztutako lau kategorien arabera: «galduta» (dagoeneko ez dago abererik), «galtzeko arrisku bizian» (100 eme edo 6 ar baino gutxiago), «galtzeko arriskuan» (100 eta 1.000 eme bitartean edo 5 eta 20 ar bitartean), «galtzeko arriskutik kanpo» (1.000 eme eta 20 ar baino gehiago).

ción de un marco reglamentario general que regule las condiciones mínimas necesarias para el establecimiento y desarrollo de los estándares raciales de los animales autóctonos y de las entidades dedicadas a su conservación, cría y perfeccionamiento.

En la tramitación del presente Decreto han sido consultadas las Diputaciones Forales así como las organizaciones representativas sectoriales.

La presente disposición se dicta de conformidad con lo previsto en el artículo 10.9 del Estatuto de Autonomía del País Vasco.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 26 de diciembre de 2001,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto.

Es objeto del presente Decreto el establecimiento del Catálogo Oficial de Razas Animales Autóctonas Vascas y de las condiciones básicas para proceder a la aprobación de sus correspondientes estándares raciales, la regulación del reconocimiento oficial de las entidades dedicadas a su conservación, cría y/o perfeccionamiento en la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como la creación del Consejo de Razas Animales Autóctonas Vascas.

*Artículo 2.–* Definiciones.

A los efectos del presente Decreto se tendrán en cuenta las siguientes definiciones:

a) Raza animal autóctona vasca: Es la raza animal cuyo origen conocido más remoto se sitúa en Euskal Herria o País Vasco y que se encuentra incluida en el catálogo creado mediante el presente Decreto.

b) Reglamentación específica de la raza: Es la disposición normativa que incluye el estándar racial, o conjunto de características objetivas comunes de los animales de una especie que permiten definirlos como pertenecientes a la misma raza, así como el establecimiento de su Libro Genealógico.

c) Entidad de fomento: Es la organización, asociación o cualquier otro ente público o privado con personalidad jurídica, dedicado a la conservación, cría y/o perfeccionamiento de una raza animal autóctona vasca, y que se encuentra reconocido oficialmente como tal mediante su inscripción en el registro creado a través de este Decreto.

d) Riesgo de extinción: Se refiere al estado de conservación de cada raza según las cuatro categorías establecidas por la F.A.O.: »extinguida» (no se conservan animales), «crítica» (menos de 100 hembras o menos de 6 machos), «en peligro» (entre 100 y 1000 hembras o entre 5 y 20 machos), «no en riesgo» (mas de 1000 hembras y más de 20 machos).

e) Liburu genealogikoa: erregistro-liburu orokorra da. Bertan, eskuz edo informatika bidez, katalogoan jasotako arrazei buruzko arau berezietan zehaztutako moduan inskribatzen dira arrazako abereak.

f) Erregistro-liburua: ustiategi baten erregistro-liburu indibiduala da, eta, hala badagokio, ustiategian jaiotako arraza-abere katalogatuak jasotzen dira.

*3. artikulua.*– Euskal Herriko bertako abere-arrazen katalogo ofiziala.

1.– Euskal Herriko bertako abere-arrazen katalogo ofiziala sortu da, dekretu honen eranskinean zehaztutakoaren arabera. Katalogoak Euskal Herrian bizirik dirauten bertako abere-arraza guztiak jasoko ditu.

2.– Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren aginduz katalogo ofizialaren edukia eguneratuko da eta bertan jasotako arrazei dagozkien arau bereziak ezarriko dira, dekretu honetan zehaztutakoaren arabera.

3.– Dagoeneko beste esparru batzuetan zehaztutako arraza-estandarren eduki zehatzak ezartzerakoan, dagozkien organo eta elkarte teknikoetan aitortutako eta hitzartutako irizpide zientifikoei jarraituko zaie.

*4. artikulua.*– Arrazei buruzko arau berezietan ezartzekoak diren oinarrizko edukiak.

1.– Prototipoa edo arraza-estandarra:

1.1.– Arrazaren definizioa.

1.2.– Arrazaren aldaerak.

1.3.– Arrazaren ezaugarri morfologikoak:

1.3.1.– Ezaugarri orokorrak.

1.3.2.– Ezaugarri bereziak:

a) burua

b) soin-enborra

c) gorputz-adarrak

d) larrua

e) kolorea

f) altuera

g) pisua

h) beste batzuk

1.3.3.– Izaera eta portaera.

1.3.4.– Ezaugarri baztertzaileak.

2.– Abereen kalifikazio morfologikoa:

2.1.– Kalifikazio-baremoak.

2.2.– Kalifikatu beharreko alderdiak eta alderdion ponderazioa.

3.– Liburu genealogikoak.

e) Libro genealógico: Es el libro general de registro en el que, de forma manuscrita o informática, se inscriben, en la forma establecida en la reglamentación específica de la raza catalogada correspondiente, los ejemplares de animales de la misma.

f) Libro de registro: Es el libro individual de registro de una explotación en el cual, y en su caso, se anotan los animales de la raza catalogada nacidos en una explotación.

*Artículo 3.*– Catálogo Oficial de Razas Animales Autóctonas Vascas.

1.– Se crea el Catálogo Oficial de Razas Animales Autóctonas Vascas, conforme figura en el Anexo al presente Decreto, que incluirá todas las razas animales autóctonas vascas de las cuales se conservan en la actualidad ejemplares.

2.– Mediante Orden del Consejero de Agricultura y Pesca se actualizará el contenido del Catálogo Oficial y se establecerán las reglamentaciones específicas correspondientes a las razas en él incluidas, conforme se fija en el presente Decreto.

3.– A la hora del establecimiento de los contenidos concretos de estándares raciales que hubieren sido ya definidos en otros ámbitos, se atenderá a los criterios científicos reconocidos y consensuados en los correspondientes órganos y entidades de carácter técnico.

*Artículo 4.*– Contenidos básicos a establecer en las reglamentaciones específicas de las razas.

1.– Prototipo o estándar racial:

1.1.– Definición de raza.

1.2.– Variedades de la raza.

1.3.– Características morfológicas de la raza:

1.3.1.– Características generales.

1.3.2.– Características específicas:

a) cabeza

b) tronco

c) extremidades

d) piel

e) capa

f) talla

g) peso

h) otras

1.3.3.– Carácter y comportamiento.

1.3.4.– Caracteres eliminatorios.

2.– Calificación morfológica de animales:

2.1.– Baremos de calificación.

2.2.– Aspectos de calificación y su ponderación.

3.– Libros genealógicos.

4.– Abere-erregistroak.

5.– Abereen onarpena eta kalifikazioa.

*5. artikulua.*– Bertako arrazak sustatzeko elkarteen erregistroa.

1.– Euskal Herriko bertako abere-arrazak sustatzeko elkarteen erregistroa sortu da, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordetzari atxikita.

2.– Euskal Herriko bertako abere-arrazak zaintzea, haztea edo eta hobetzea helburu duten elkarteak erregistroan inskribatuko dira Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordearen ebazpen bidez baldin eta «Euskal Herriko bertako abere-arraza sustatzeko elkarte» gisako aitorpen ofiziala lortu nahi badute, irabazi-asmorik ez badute eta beharrezko baliabide tekniko eta pertsonalak badituzte. Era berean, erregistroan horiei buruzko gorabehera garrantzitsu guztiak jasoko dira.

3.– Aitorpen ofiziala lortzeko eta erregistroan dagokion inskripzioa egiteko, elkarteek, kasuan kasuko espezie edo arrazari dagozkion baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute. Halaber, euren izaerari buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, hau da, eraketa, helburua eta estatutuak, osaera, jarduera-esparrua, beste erregistroetako inskripzio-ziurtagiriak, bai eta bertako abere-arrazen biziraupen, hazkuntza edo eta hobekuntzari buruz eskatzen zaizkien datuak ere.

4.– Inskripzioa egiterakoan emandako datuetan aldaketak izanez gero, horren berri dokumentala eman beharko du berehala aitorpen ofiziala duen elkarteak, erregistroan inskribatuta jarraitu nahi badu. Nolanahi ere, urtero, elkarteak bere egoeraren eta jardueren memoria aurkeztu beharko du, bai eta katalogoan jasotako arrazaren egoerarena ere.

5.– Aitorpen ofiziala ukatu edo, hala badagokio, baliorik gabe utzi daiteke, baldin eta dagokion erakundeak arriskutan jartzen badu katalogoan jasotako bertako arrazaren bat, aitorpen ofiziala duen beste edozein erakunderen jarduera oztopatzen badu edo ezarritako baldintza guztiak betetzen ez baditu.

6.– Dekretu honen arabera aitorpen ofiziala duten sustapenerako elkarteek baimena jaso dezakete Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordearen ebazpen bidez liburu genealogikoen ardura izateko, ebazpen horretan zehaztutako baldintzetan. Baimendutako elkarteek liburu genealogikoetan jasotako informazioaren eta jarduerarekin lotutako alderdiei buruz eskatzen zaizkien datuen berri eman beharko diote baimena eman duen organoari.

7.– Aitortutako elkarteen eta kudeatzen dituzten liburu genealogikoen jarraipena foru aldundiei dagokie. Dena den, foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila ados jartzen badira, bidezkoa da liburu genealogikoen ardura-lanen jarraipen eta

4.– Registros de animales.

5.– Admisión y calificación de animales.

*Artículo 5.*– Registro de entidades de fomento.

1.– Se crea el Registro de Entidades de Fomento de Razas Animales Autóctonas Vascas, adscrito a la Viceconsejería de Agricultura y Desarrollo Rural del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

2.– En el Registro, y mediante Resolución del Viceconsejero de Agricultura y Desarrollo Rural, se inscribirán las entidades dedicadas a la conservación, cría y/o perfeccionamiento de razas animales autóctonas vascas que pretendan su reconocimiento oficial como «Entidad de Fomento de Raza Animal Autóctona Vasca», y las cuales deberán carecer de ánimo de lucro y disponer de los medios técnicos y de personal necesarios. Asimismo, se inscribirán todas las incidencias relevantes referidas a las mismas.

3.– Para proceder al reconocimiento oficial y consiguiente inscripción en el Registro, las entidades deberán acreditar el cumplimiento de los requisitos que se pudieren establecer en relación con cada especie o raza y aportar la documentación referida a su constitución, objeto y estatutos, composición, ámbito de actuación, certificación de inscripción en otros registros, así como cualesquiera otros datos que le fueren solicitados en relación con la actividad de conservación, cría y/o perfeccionamiento de razas animales autóctonas.

4.– Para permanecer inscrita en el Registro, la entidad oficialmente reconocida deberá aportar con inmediatez información documental de las modificaciones que se produzcan en relación con los datos proporcionados a la hora de su inscripción. En todo caso, anualmente, la entidad presentará una memoria de su situación y actividades, así como de la situación de la raza catalogada.

5.– El reconocimiento oficial se podrá denegar, o revocar en su caso, cuando de alguna manera la entidad en cuestión pusiera en peligro la conservación de alguna de las razas autóctonas catalogadas, obstaculizara el funcionamiento de otra entidad reconocida oficialmente o incumpliera alguno de los requisitos establecidos.

6.– Las entidades de fomento reconocidas oficialmente conforme a este Decreto podrán ser autorizadas, mediante Resolución del Viceconsejero de Agricultura y Desarrollo Rural, a realizar la llevanza de libros genealógicos en las condiciones que se fijen en la misma. Las entidades autorizadas deberán facilitar al órgano autorizante la información contenida en los libros genealógicos y cuantos otros datos relacionados con la actividad le sean requeridos.

7.– El seguimiento de las entidades reconocidas así como el de los libros genealógicos que pudieran gestionar corresponderá a las Diputaciones Forales, si bien mediante acuerdo entre éstas y el Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco se podrá esta-

koordinazioari buruzko funtzioak aitorpen ofiziala duten elkarteen esku uztea.

8.– Sustapenerako elkarteen aitorpena administrazio prozeduraren araudi komunarekin bat etorriz egingo da.

*6. artikulua.*– Euskal Herriko Bertako Abere-Arrazen Kontseilua.

1.– Euskal Herriko Bertako Abere-Arrazen Kontseilua eratu da, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordetzari atxikitako kide anitzeko organo gisa. Kontseiluaren jardueran, kontseiluak berak onartzen dituen barne-arauak, eta, horren ezean, administrazio-prozedura komunaren arau orokorrak beteko dira.

Kontseiluak, bere funtzioak egoki betetzeko behar beste aldiz elkartuko da, eta, edonola ere, urtean behin.

2.– Euskal Herriko Bertako Abere-Arrazen Kontseilua honako kide hauek osatuko dute:

a) Kontseiluburuak: Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordea.

b) Buruordeak: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza zuzendaria.

c) Kontseilukideek:

– Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko Ikerketa zuzendaria.

– Pertsona bat, gutxienez zuzendari-maila duena, foru aldundi bakoitzaren ordez eta beraiek proposatuta.

– Aitorpen ofiziala duten sustapenerako elkarteen hiru ordezkari, «Euskal Abereak» elkarteak proposatuta.

– Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko funtzionario bat, teknikari-albaitaria, idazkari-lanak ere egingo dituena.

Arrazen ikerketan eta zaintzan adituak eta zientzialari espezializatuei bileretan parte hartzeko deia egin dakieke.

Izenez zehaztutako karguen ordez ez dauden kontseilukideak Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak izendatu beharko ditu.

3.– Euskal Herriko Bertako Abere-Arrazen Kontseiluak honako eginkizunok izango ditu:

a) Euskal Herriko Bertako Abere-Arrazen Katalogo Ofizialean aldaketak egiteko proposatzea.

b) Katalogoan aldaketak egiteko proposamenei buruzko argibideak arauz ematea.

blecer que las funciones relativas al seguimiento y coordinación de las labores de llevanza de libros genealógicos sean realizadas por una o varias de las entidades reconocidas oficialmente.

8.– El reconocimiento de las entidades de fomento se realizará de acuerdo con la normativa común de procedimiento administrativo.

*Artículo 6.*– Consejo de Razas Animales Autóctonas Vascas.

1.– Se crea el Consejo de Razas Animales Autóctonas Vascas, como órgano colegiado adscrito a la Viceconsejería de Agricultura y Desarrollo Rural del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, cuyo funcionamiento se regirá por las normas internas que el mismo apruebe y, en su defecto, por la normativa general del procedimiento administrativo común.

El Consejo se reunirá cuantas veces fuera necesario para el adecuado cumplimiento de sus funciones y, en todo caso, una vez al año.

2.– El Consejo de Razas Animales Autóctonas Vascas estará formado por los siguientes miembros:

a) Presidente: El Viceconsejero de Agricultura y Desarrollo Rural.

b) Vicepresidente: El Director de Agricultura del Gobierno Vasco.

c) Vocales:

– El Director de Investigación del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

– Una persona, con rango al menos de Director, en representación y a propuesta de cada una de las Diputaciones Forales.

– Tres representantes de las entidades de fomento reconocidas, a propuesta de la Asociación «Euskal Abereak».

– Un funcionario técnico veterinario del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, que realizará asimismo las funciones de Secretario.

Podrán ser convocados a las reuniones del Consejo expertos y científicos especializados en el estudio y conservación de razas.

El nombramiento de los miembros del Consejo que no lo sean en razón de ostentar alguno de los cargos que figuran nominalmente identificados, será realizado por el Consejero de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

3.– El Consejo de Razas Animales Autóctonas Vascas tendrá las siguientes funciones:

a) Proponer modificaciones del Catálogo Oficial de Razas Animales Autóctonas Vascas.

b) Informar, preceptivamente, las propuestas de modificación del Catálogo Oficial.

c) Katalogoan jasotako arrazei dagozkien arau bereziei eta horien aldaketei buruzko argibideak arauz ematea.

d) Katalogoaren jarraipena eta kontrola egitea.

4.– Liburu Genealogikoaren Batzordea Euskal Herriko Bertako Abere-Arrazen Kontseiluaren menpe egongo da. Izan ere, Kontseilua ere arau honen bidez eratu da.

Liburu Genealogikoaren Batzordea honako hauek osatuko dute: Kontseilua osatzen duten erakundeen ordezkari teknikari banak eta kontseilu hori osatzen duten entitateetako hiru ordezkarik, Kontseiluak proposatuta eta Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordeak izendatuta. Batzordeak honako egiteko hauek izango ditu:

a) Kontseiluaren lanak prestatzea.

b) Katalogatutako arrazen liburu genealogikoetan inskribatzeko eskaerak aztertzea, arau berezietan ezarritakoa betetzen duten egiaztatzeko.

c) Kalifikatutako abereak onartzea, bidezkoa bada.

d) Dokumentazio genealogikoari aterabidea ematea. Eginkizun hau aitorpen ofiziala duten elkarteen esku utzi ahal izango da.

e) Liburu genealogikoaren jardueran sor litezkeen gorabeherei erantzutea eta horiek konpontzea.

f) Katalogatutako arrazen arau bereziak aldatzeko proposatzea.

5.– Kontseiluaren eta Batzordearen egitekoak Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailaren baliabide eta langileen bidez burutuko dira.

7. ***artikulua***.– Sustatzeko programak eta neurriak.

Nekazaritza eta Arrantza Sailak, eskumena duten foru organoen lankidetzaz, Euskal Herrian galzorian dauden bertako abere-arrazak eta arrazok zaintzen, hazten edo eta hobetzen dituzten elkarteak sustatzeko beharrezkoak diren laguntza-programak eta -neurriak ezarriko ditu.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Katalogatutako bertako arrazen abereek parte hartzen duten lehiaketen eta bestelako gertakizunen aitorpen ofiziala Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren agindu bidez arautuko da.

XEDAPENAK IRAGANKORRAK

***Lehenengoa***.– Dekretu hau indarrean jarri eta abereen liburu genealogikoen ardurarekin lotutako lanak egiten dituzten entitateek, Euskal Herriko Bertako Abere-Arrazak Sustatzeko Elkarte gisako aitorpen ofi-

c) Informar, con carácter preceptivo, las reglamentaciones específicas correspondientes a las razas incluidas en el Catálogo y sus modificaciones.

d) Realizar el seguimiento y control del Catálogo.

4.– Del Consejo de Razas Animales Autóctonas Vascas dependerá la Comisión del Libro Genealógico, que se crea igualmente por la presente norma.

La Comisión del Libro Genealógico estará compuesta por un técnico representante de cada una de las instituciones que forman el Consejo y tres representantes de las entidades que asimismo forman dicho Consejo, nombrados por el Viceconsejero de Agricultura y Desarrollo Rural a propuesta de aquel, y que tendrá las siguientes funciones:

a) Preparar los trabajos del Consejo.

b) Examinar las solicitudes de inscripción en el Libro Genealógico de una raza catalogada, con el fin de verificar el cumplimiento de lo establecido en la correspondiente reglamentación específica.

c) Acordar la admisión, si procede, de los ejemplares calificados.

d) Expedir la documentación genealógica, lo cual podrá delegarse en las entidades reconocidas oficialmente.

e) Atender y resolver las diferentes incidencias en el funcionamiento del Libro Genealógico.

f) Proponer modificaciones de las reglamentaciones específicas de las razas catalogadas.

5.– Las funciones del Consejo y de la Comisión serán atendidas con los medios materiales y personales del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

***Artículo*** 7.– Programas y medidas de fomento.

El Departamento de Agricultura y Pesca, en coordinación con los órganos forales competentes, establecerá los programas y medidas subvencionales necesarias para el fomento de las razas animales autóctonas vascas que se encuentren en riesgo de extinción y de las entidades dedicadas a su conservación, cría y/o perfeccionamiento.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Mediante Orden del Consejero de Agricultura y Pesca se regulará el reconocimiento oficial de los concursos y otros eventos en los que participen animales de las razas autóctonas catalogadas.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

***Primera***.– Aquellas entidades que, a la entrada en vigor del presente Decreto, realicen labores relacionadas con la llevanza de libros genealógicos de animales y pretendan su reconocimiento oficial como Entidad de

ziala lortu nahi badute, aitorpena jasotzeko eta erregistroan inskribatzeko beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko dute hiru hilabeteko epean, arau honen 5. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

*Bigarrena.–* Indarrean jarraituko dute arraza-estandarrak arautzen dituzten honako xedapen hauek:

a) Agindua, 1995eko ekainaren 7koa, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, «Pottoka» zaldiarrazari buruzko arau bereziak onartzen dituena.

b) Agindua, 1999ko martxoaren 16koa, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, zeinaren bitartez «Betizu» behi-arrazari buruzko arau bereziak onartzen baitira

c) Agindua, 1999ko uztailaren 21ekoa, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, zeinaren bitartez «Montxina» behi-arrazari buruzko arau bereziak onartzen baitira.

d) Agindua, 1999ko uztailaren 21ekoa, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, zeinaren bitartez «Euskal Herriko Mendiko Zaldia»ri buruzko arrazari buruzko arau bereziak onartzen baitira.

e) Agindua, 2001eko martxoaren 15ekoa, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, zeinaren bitartez «Euskal Oiloa» hegazti-arrazari buruzko arau bereziak onartzen baitira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabe geratzen dira dekretu honen aurka doazen xedapenak, maila berekoak edo beheragokoak badira.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Gaur arte ezarritako eta argitaratutako Euskal Herriko bertako abere-arrazen estandarrak Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren agindu bidez egokituko zaizkio dekretu honen edukiari, hala badagokio.

*Bigarrena.–* Ahalmena ematen zaio Nekazaritza eta Arrantza sailburuari dekretu hau garatzeko eta ezartzeko behar beste xedapen emateko.

*Hirugarrena.–* Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko abenduaren 27an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
IÑAKI GERENABARRENA MARTÍNEZ DE LAHIDALGA.

Fomento de Razas Animales Autóctonas Vascas deberán, en el plazo de tres meses, aportar la documentación pertinente para su reconocimiento y registro, conforme a lo previsto en el artículo 5 de la presente norma.

*Segunda.–* Se mantienen en vigor las siguientes disposiciones reguladoras de estándares raciales:

a) Orden de 7 de junio de 1995, del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca, por la que se aprueba la reglamentación específica de la raza equina «Pottoka».

b) Orden de 16 de marzo de 1999, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se aprueba la reglamentación específica de la raza bovina «Betizu».

c) Orden de 21 de julio de 1999, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se aprueba la reglamentación específica de la raza bovina «Monchina».

d) Orden de 21 de julio de 1999, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se aprueba la reglamentación específica de la raza equina «Euskal Herriko Mendiko Zaldia / Caballo de Monte del País Vasco».

e) Orden de 15 de marzo de 2001, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se aprueba la reglamentación específica de la raza aviar «Euskal Oiloa».

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango en la materia se opongan a lo establecido en este Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Mediante Orden del Consejero de Agricultura y Pesca, se adecuarán, en su caso, al contenido de este Decreto, los estándares de las razas animales autóctonas vascas establecidos y publicados hasta la fecha.

*Segunda.–* Se habilita al Consejero de Agricultura y Pesca para dictar cuantas disposiciones fueren necesarias para el desarrollo y aplicación de este Decreto.

*Tercera.–* El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 26 de diciembre de 2001.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
IÑAKI GERENABARRENA MARTÍNEZ DE LAHIDALGA.

## ERANSKINA / *ANEXO*

### EUSKAL HERRIKO BERTAKO ABERE-ARRAZEN KATALOGO OFIZIALA
### *CATÁLOGO OFICIAL DE RAZAS ANIMALES AUTÓCTONAS VASCAS*

| ESPEZIEA<br>*ESPECIE* | ARRAZA / *RAZA* | ALDAERA<br>*VARIEDAD* | EGOERA / *SITUACIÓN* |
|---|---|---|---|
| BEHIAK<br>*BOVINA* | Betizu | | Galtzeko arriskuan<br>*En peligro* |
| | Monchina | | Galtzeko arrisku bizian<br>*Crítica* |
| | Pirenaica | | Galtzeko arriskutik kanpo<br>*No en riesgo* |
| | Terreña | | Galtzeko arriskuan<br>*En peligro* |
| ZAKURRAK<br>*CANINA* | Erbi Txakurra | | Galtzeko arrisku bizian<br>*Crítica* |
| | Euskal Artzain Txakurra | Gorbeiakoa | Galtzeko arriskuan<br>*En peligro* |
| | | Iletsua | Galtzeko arriskuan<br>*En peligro* |
| | Villano de las Encartaciones | | Galtzeko arrisku bizian<br>*Crítica* |
| | *Villanuco de las Encartaciones* | | Galtzeko arrisku bizian<br>*Crítica* |
| ARDIAK<br>*OVINA* | Carranzana | Cara Negra | Galtzeko arriskuan<br>*En peligro* |
| | | Cara Rubia | Galtzeko arriskutik kanpo<br>*No en riesgo* |
| | Latxa | Cara Negra | Galtzeko arriskutik kanpo<br>*No en riesgo* |
| | | Cara Negra | Galtzeko arriskutik kanpo<br>*No en riesgo* |
| | Sasi Ardi | | Galtzeko arriskuan<br>*En peligro* |
| ZALDIAK<br>*EQUINA* | Euskal Herriko Mendiko Zaldia<br>*Caballo de Monte del País Vasco* | | Galtzeko arriskuan<br>*En peligro* |
| | Pottoka | | Galtzeko arriskuan<br>*En peligro* |
| HEGAZTIAK<br>*AVIAR* | Euskal Antzara | | Galtzeko arrisku bizian<br>*Crítica* |
| | Euskal Oiloa | Beltza | Galtzeko arrisku bizian<br>*Crítica* |
| | | Gorria | Galtzeko arrisku bizian<br>*Crítica* |
| | | Lepasoila | Galtzeko arrisku bizian<br>*Crítica* |
| | | Marraduna | Galtzeko arrisku bizian<br>*Crítica* |
| | | Zilarra | Galtzeko arrisku bizian<br>*Crítica* |
| ASTOAK<br>*ASNAL* | Asno de las Encartaciones | | Galtzeko arrisku bizian<br>*Crítica* |
| AHUNTZAK<br>*CAPRINA* | Azpi Gorri | | Galtzeko arrisku bizian<br>*Crítica* |
| TXERRIAK<br>*PORCINA* | Euskal Txerria | | Galtzeko arrisku bizian<br>*Crítica* |